

#JesusGureanEreBidelagun

0 a 6 años, Esnatu

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA

Emauserako bidean Emauserantz goaz

Emauseko bidea asteko ...

Har dezagun asti apur bat familian, patxadaz bizitzeko. Lehenik eta behin, etxeko nagusiok, aita-amok, hurbil zaitezte gaur ere, bizitzea egokitu zaizkigun era bateko edo besteko baldintzetan, bizitzako bidera irteten zaigun Jesus Berpiztuaren Berri Onera.



Textua irakurtzeko, sakatu irudiaren gainean

Barneratzea

Josita hiltzen ikustean, beren itxaropen guztiak zapuztu egin zirela sentitu zuren Emauseko ikasleek eta atsekabaturik zihoazen etxera; hala ere, emakumeek eta beste ikasleren batek edo bestek kontatutakoaren eraginez, itxaropena ez da erabat itzali eta Jesusek agindutakoa betetzea nahi dute, gogoz motel samar azaltzen badira ere... Kontaketan seinalez beteriko agertokia ikus dezakegu: bidea, bi ibiltari, bat egitea, Idazki Santuak, abegia, mahai beraren inguruan jartzea... Gure eguneroko bizitzan Jesusen Espirituaren zantzuak ikusten ikas dezagun eratzen du Lukasek kontaketa hau.

Gizaldiaren hasierako Europa honetan inoiz ez moduko pandemia, inoiz burutik pasatu ere ez zitzaigukeen moduko pandemia bizi dogu. Birus nanometriko horren aurrean sentitzen dugun ezintasunak jokoz kanpo uzten gaitu eta bizitzaren aurrean beste era batera kokatzen. Egoera honek makina bat lagunen eskaintza, zerbitzua eta elkartasuna agertzera eman digu. Eta beraiekin batera, guztiok -minduta, kolpatuta, batzuk asko, gainera- eta guztiok bat eginda eta guztion ahaleginarekin, egoera honetatik ateratzeko nahia eta itxaropena. Geuk ere ikasi egin behar dugu ikasten, bizitzea egokitu zaigun errealitatea ulertzen... eta, horrela, Emauseko ikasleekin batera, Jesusen atzetik jarraitu.

#JesusGureanEreBidelagun

Jainkoarekin berba egiteko ...

Proposamena seme-alabekin garatzen hasi aurretik, ondorengo otoitz hau egingo dugu.

GERATU ZAITEZ!

Batzuetan oharkabe joango naiz,
eta nire ondoan errones ezezagun izango zara.
Nabarmendu zaitez.

Beharbada porrotetan murgilduta joango naiz,
porrotak hausnartuz, kolpeak deitoratuz,
nahigabeak arrastatuz, eguzki distiratsua,
borborka sortzen den bizia,
zuk luzatutako eskua ikusi gabe.
Ukitu sorbalda eta enbarazu eginiezadazu.

Beharbada, hitzetan galduta,
ez nuen zure ahotsa entzun zeruan,
historian, eguneroko bizitzan idatzitakoa argituz.
Zuk garrasi egin.

Beharbada ez dizut eskatuko, ez dizut aterik irekiko,
eta ez naiz geldiarazten gaituen goseaz konturatuko.
Baina geldi zaitez.

Beharbada zu ezagutzean,
neure etxean, nire mahaian
geldiarazi nahiko zaitut uea harrapatuz.

Berriz joango zara, nire paparrean
milaka suren berotasuna eta bat
egitearen poztasuna utziz

José María R. Olaizola, sj

Umeagaz Emauseko bidea egiteko,
sakatu irudiaren gainean...



Familiak 3 urterainoko haurrekin...

Proposamen I

Atera leiho eta balkoietara txikiekin txalo egitera. Une hori jolas bihur daiteke beraientzat. Esate baterako, nori egiten diogun txalo eta zergatik esan:

- Osasun-langileei zaindu egiten gaituztelako.
- Kale-garbitzaile guztiei kaleak garbitu eta txukun uzten dituztelako.
- Aitona-amonei etxean daudelako beren burua zaintzen eta maite gaituztelako.
- Maite gaituzten eta gutaz oroitzen diren irakasleei.
- Supermerkatutako langileei, gauza gozoak saltzen dizkigutelako.
- Jolas eta barre egiten duten eta guztiok alaitzen gaituzten haurrak.
- Txikiez arduratzen diren eta zaintzen dituzten aitak eta amak.
-

Jolasean ari gaitzke, batzuetan gogor txalo eginez, beste batzuetan, ia zaratarik atera gabe, askotariko erritmoekin, musika egin eta, aldi berean abestuz... Jolas dibertigarri bihur dezakegu...



Entrenamentu egin ezkeror lortzen dana ikusteko, sakatu irudiaren gainean

Proposamen II

Beste une batean, eskuak margo ditzakezue (nagusi eta txikien eskuak paper batean marraztu ondoren) eta leihoan itsatsi, txaloaren sinbolo bezala, txalo egiteko beste era bat balitz bezala. Hona hemen beste proposamen bat: zuon seme-alabekin txalo egiten diegun pertsonen (osasun-langileak, kale-garbitzaileak, pertsona nagusiak, irakasleak...) irudiak margotu (interneten aurki ditzakegu), eta, bitartean, zergatik diren Jesusen antzeko komentatuko dugu: Jesusek zaintzen duen bezala zaintzen gaituztelako, Jesusek maite gaituen bezala maite gaituztelako...

Eskerrak eman nahi baduzu, sakatu irudiaren gainean.



Jainkoagaz berba egiteko...

Ondoren, eta seme-alabak besoetan dituzuela, egin berri duzuenari lotutako otoitza egin. Esker ona adieraz dezakegu, zaintzen gaituzten guztiengatik edo atsekabetuta, dagoen norbait, gure inguruan hil egin den eta orain Aita Jainkoarekin dagoen norbait... gogora dezakegu. Azaldu zer egin duzuen eta zergatik; eta ez dizuela ulertzen pentsatzen baduzue ere, ez eman garrantzirik, ikasiko du-eta, zuok egiten ikusiz.

Familiak 3-6 urte bitarteko hurrekin...

Proposamen I

Atera leiho eta balkoietara txikiekin txalo egitera. Une hori jolas bihur daiteke beraiantzat. Esate baterako, nori egiten diogun txalo eta zergatik esan:

- Osasun-langileei zaindu egiten gaituztelako.
- Kale-garbitzaile guztiei kaleak garbitu eta txukun uzten dituztelako.
- Aitona-amonei etxean daudelako beren burua zaintzen eta maite gaituztelako.
- Maite gaituzten eta gutaz oroitzen diren irakasleei.
- Supermerkatutako langileei, gauza gozoak saltzen dizkigutelako.
- Jolas eta barre egiten duten eta guztiok alaitzen gaituzten haurrak.
- Txikiez arduratzen diren eta zaintzen dituzten aitak eta amak.
-

Proposamen II

Denon artean, iparrorratza ere marraz dezakegu; zer den eta zertarako balio duen azalduko diegu hurrei eta iparrean Jesus jarriko dugu, bidean bera nahi dugulako gidari. Iparrorratza leihoko kristalean itsas dezakegu, Jesusen antzeko lagun asko dagoelako: gaixoak zaintzen dituztenak, bititza zorioneko egiten digutenak, maite gaituztenak...

Iparorratz egiteko,
sakatu irudiaren gainean ...



Jainkoagaz berba egiteko...

AHiru urtetik beherako hurrekin egiteko otoitzaz gainera, beste hau ere egin dezakezue:

• *Jesus, maitasuna dagoen lekuan, han zaude Zeu.
Horregatik, nire eskuek laguntzen
eta ferekatzen dutenean,
nire ahoak kontsolatzen
eta adoretzen duenean,
nire bihotzak barkatzen eta
maitatzen duenean,
nire gorputz osoa zure
maitasunaren tresna dela
ikusten dut. Amen*



"Irakats ie zadazu otoitz egiten". Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gazteizko eliz Barrutietako Ordeztaritza eta Idazkaritzak. 26 orrialdea